



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

Aisialdiko ekintzak

Semea edo alaba udalekuetan edo Gabonetako ekintzetan parte hartzeko izena ematea

- Helburu linguistikoak
 - Umeek euskararen aurrean jarrera positiboa izan dezaten lortzea
 - Ikastetxe-euskara identifikazioa gainditzea eta umeei erakustea euskara komunikaziorako tresna baliagarria dela
 - Taldean giro atsegina sortzea, bertan umeek ezagutzen duten euskara eroso eta konplexurik gabe erabili ahal izan dezaten
 - Umeei ikastetxean ikasten duten euskara erabiltzeko aukera eskaintzen dion ingurunea sortzea
 - Eguneroko bizimoduan euskara erabiltzeko ohitura sortzea
- Aisiarako hezkuntzaren helburuak
 - Umearen garapen osoa sustatzea
 - Jarduera hauetan parte hartzen duten umeek ondo pasatzea eta bere aisiaz gozatzea
 - Natur ingurunea errespetatu eta zaintzeko ohiturak sortzea
 - Ermuko eta Euskal Herriko kultur elementuak ezagutzea
 - Umeak bere zaletasunak ezagutu eta garatzen dituen modua eskaintzea

Zein da helburua?

Nork tramitatzen du?

Euskara Sailak

Zein organok erabakitzen du?

Euskara Arloko zinegotziak

Non aurkeztu eskaera?

Euskara Sailsa (udaletxeko beheko solairua), astelehenetik ostiralera: 8:30etatik 14:30etara.

Eskaera noiz aurkeztu behar da?

Deialdia egiten denetik bi aste. Deialdia www.ermua.es web gunearen bitartez, atarietan jartzen diren ohar-informatiboen bidez edota herriko ikastetxeetara informazioa bidaliz argitaratuko da

Posta elektronikoa

Zerbitzurik onena emateaz batera egiteko aurkeztu duzun lizentzia-eskabideari ahalik eta bizkorren erantzun nahi diogu, horregatik zure posta elektronikoa erabiltzeko baimena eskatzen dizugu, elkarrekin komunikatzeko, dokumentazioa elkartrukatzeko eta zure eskabideari loturiko administrazio-egintza guztiak jakinarazteko

Babesteko lege organikoa betetzea

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoari jarraituz, lasai egon eta seguru senti zaitezten, honakoaren bitartez adierazten dizugu emango dizkiguzun datu pertsonalak EUSKARAKO ESPEDIENTEAK delako fitxategi batean jasoko direla eta fitxategi horren arduraduna Ermua Hiriko Udala dela, zeinak Valdespinako Markesa 1. 48260 Ermuan helbidea duen. Euskara saileko espedienteak, euskara-ikasleentzako diru-laguntzak, talde eta elkarteentzako diru-laguntzak, lehiaketetako partaideen datuak eta aisialdiko ekintzak gestionatzea eta Euskara Planaren jarraipena eta garapena helburu duen fitxategi hori Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinarazi zaio, hortaz, behar diren neurri guztiak hartu dira datuen segurtasuna bermatzeko.

Hori horrela, honako dokumentua sinatzeak esan nahi du eskatzailea jakinaren gainean dagoela eta baimena ematen duela bere datuak aipatutako helburuarekin tratatzeko.

Gogorazten dizugu aukera daukazula emandako datuak eskuratzeko edo, behar izanez gero, aipaturiko legean ezarritakoaren arabera zuzenketak, kontrakotasuna edo deuseztapena eskatzeko. Horretarako, idatzizko komunikazio bat bidali beharko diozu



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

Aisialdiko ekintzak

adierazitako helbidera Ermua Hiriko Udaleko Segurtasun Arduradunari ondorengo datuak jasoz: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Erosoago gerta dakizun, udal web orriaren bitartez ere egikari dezakezu eskubide hori, honako helbidean: www.ermua.es>Abiapuntu>Udal kudeaketak.

Halaber, eskatzaileak adierazten du emandako informazioa egiazkoa dela eta ez duela berarentzat kaltegarria gerta litekeen informaziorik gorde edo aldatu, eta badakiela daturen bat eman ez edo egiazkoa ez izateak zerbitzua behar bezala ez jasotzea ekar liezaiokeela.

Hartzaileak

- ✓ Ermuko 6 eta 15 urte bitarteko umeak, LHko 1. maila eta DBHko 4. maila bitartean eskolatutakoak, alegia
- ✓ Solidaritate programa baten bidez, familia ermuarrek hartutako beste herrialdeko umeak

Zeintzuk agiri behar dira?

- ✓ Eskabide orria
- ✓ Osakidetzako txartelaren kopia

Araudia

23. Ordenantza Fiskala. Zerbitzu soziokultural eta euskarazkoak emateagatiko tasa
- ✓ Kontzeptu honengatik ordaindu beharreko tasen zenbatekoa 23 zenbakidun udal ordenantzak araupetuta daude. Ordenantza horrek Gizarte eta Kultur Zerbitzuak eta Euskarazkoak eskaintzeagatik ordaindu beharreko kopuruak zehazten ditu. Aipatutako zenbateko horiek urtez urte aldatzen dira, eta Udaleku Irekiak edo Gabonetako Jarduerak diren ere aldatzen dira
 - ✓ Era berean, partaide bakarragatik edo bi anaia-arrebengatik ordaindu beharreko zenbatekoa ere ez da berdina. Bestaldetik, ordenantza horretan tasa aldakorren kasua ere aurreikusita dago. Tasa horrek udalerriz kanpo alojamendua eta mantenua behar dituzten egonaldien aparteko kasuetarako kostuaren % 75 ordaintzen du

Zenbat ordaindu behar da?

Zein epetan tramitatuko da?

Berehala

Administrazio-isiltasuna

Onartua

- ✓ Ez da onartuko epez kanpo aurkeztutako eskabidea
- ✓ Plaza kopuruekin arazorik izango balitz, izena eman den hurrenkera bera izango da behin-betiko zerrendak osatzeko irizpidea
- ✓ Udalekuak hasi baino lehen umea istripuren bat edo gaixotasunaren bat izanez gero, matrikulazio-dirua jasotzeko aukera izango dute gurasoek. Holakoetan eskabidea eta medikuaren agiria aurkeztu beharko dituzte
- ✓ Euskara Sailak tramitea hobeto burutzeko aparteko beste edozein dokumentazio eskatzeko eskubidea izango du

Oharrak

Zerikusia duten beste agiri batzuk

- ✓ Eskabidea
- ✓ Egitaraua